

ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO MUNICIPAL, N° 5/19, CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA EN EL SALÓN DE SESIONES DE LA CASA CONSISTORIAL, CON FECHA 25 DE JUNIO DE 2019, SIENDO LAS 9:30 HORAS, Y CON LA ASISTENCIA DE LOS SIGUIENTES:

Presidenta: D^a Irantzu Ibarrondo Abad (EAJ-PNV)

Tenientes de Alcalde: Primer Teniente Alcalde: D^a Mamen Etxebarria Berasaluze (EAJ-PNV).

Segundo Teniente Alcalde: D. Unai Anton Castelao. (EAJ-PNV)

Tercera Teniente Alcalde: D^a Rebeca García Artiach. (EAJ-PNV)

Concejales que asisten: D. Agustín Cuadrado Torre (EH BILDU)

D^a Begoña Martínez López (EH BILDU).

D. Daniel Campo Urkidi (EH BILDU).

D. Asier Likona Santamarina (EH BILDU).

D. Alberto Miguel Lambarri Arana (AEI)

D. Germán Gazpio Sampayo (AEI).

D. Jesús María Mena Mauriz (AEI)

Asistidos de la Secretaria – Interventora de la Entidad Local, Doña Esther Santamaría Dolores, que da fe del acto.

ACTA

1.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA DE CONSTITUCION DEL AYUNTAMIENTO CELEBRADA EL DIA 15 DE JUNIO DE 2019.

Habiéndose remitido con anterioridad a la convocatoria de esta sesión, borrador del Acta de 15 de junio de 2015, de Constitución del Ayuntamiento, se da por leída.

Se pregunta a los asistentes si hay alguna observación que realizar, y comienza D^a Begoña Martínez de EH BILDU corrigiendo la contestación a la fórmula de la promesa, en euskera, utilizada por los concejales de EH BILDU, debiendo hacer constar, la correcta que es: “Lege aginduzko bidez ezin egiten dut”.

D. Alberto Lambarri de la AEI, observa que él juro, sin añadir la expresión por imperativo legal, debiendo suprimirse.

Por último, D^a Irantzu Ibarrodo, corrige la contestación al juramento en euskera utilizada por los concejales del EAJ-PNV: señalando que debe constar la expresión: “Legeak agiduta zin eginten dut”.

Se ratifica el Acta de la Sesión anterior Extraordinaria nº 4 del año 2019, de Constitución del Ayuntamiento de 15 de junio, con las correcciones observadas.

PARTE RESOLUTIVA.

2.- DAR CUENTA DEL NOMBRAMIENTO DE TENIENTES DE ALCALDE Y DE LAS DELEGACIONES CONFERIDAS.

Los Tenientes de Alcalde son órganos necesarios que existen en todos los ayuntamientos, de conformidad con el art. 20.1.a) de la Ley 7/85 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, y el nombramiento de los Tenientes de Alcalde, según el art. 21.2., de la misma Ley, es atribución del alcalde.

Se da cuenta al Pleno de que mediante el Decreto nº354/19, de 19 de junio, se ha resuelto Nombrar Tenientes de Alcalde de este Ayuntamiento y por este orden a:

1er Teniente de Alcalde: D^a Mamen Etxebarria Berasaluze (EAJ-PNV)

Se le delega las Areas denominadas de Bienestar Social, Igualdad, Juventud y Seguridad.

2º Teniente de Alcalde: D. Unai Antón Castelao (EAJ-PNV)

Se le delega las Areas denominadas Montes, Turismo y Deportes.

3er Teniente de Alcalde: D^a Rebeca García Artiach (EAJ-PNV).

Se le delega las Areas denominadas Economía y Hacienda, Cultura y Educación y Patrimonio.

Dada cuenta se dan por enterados.

3.- COMPOSICION DE LA PRECEPTIVA COMISION ESPECIAL DE CUENTAS.

De conformidad con el art. 20.1.e) de la Ley 7/85 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la Comisión Especial de Cuentas es un órgano necesario que existe en todos los municipios. De acuerdo con la estructura prevista en el art. 116, estará constituida por miembros de los distintos grupos políticos integrantes de la Corporación.

Todos los grupos políticos integrantes de la corporación tendrán derecho a participar, mediante la presencia de concejales pertenecientes a los mismos en proporción al número de Concejales que tengan en el Pleno. Cada grupo con representación en el Pleno tiene derecho a tener un representante, en este caso, son tres miembros, 1 EAJ-PNV, 1 Bildu, y otro la A.E.I; no obstante el voto es ponderado en proporción a su representación en el Pleno. La alcaldesa de la Corporación es la Presidenta de todas ellas; sin embargo, la presidencia efectiva podrá delegarla en cualquier miembro de la Corporación.

Se designan a los siguientes miembros de la Comisión Especial de Cuentas:

Presidenta: D^a Irantzu Ibarrodo Abad, alcaldesa.

Vocal: representante del EAJ-PNV a D^a Rebeca García Artiach.

Vocal: Representante de EH BILDU: D. Agustín Cuadrado Torre

Vocal: Representante de AEI: D. Jesús M^a Mena Mauriz.

Como suplentes se designan a:

El grupo EAJ – PNV, designará a los suplentes en otro pleno posterior

Vocal suplente de EH BILDU: D^a Begoña Martínez López.

Vocal suplente de la AEI: D. Germán Gazpio Sampayo.

4.- CREACION DE COMISIONES INFORMATIVAS Y EN SU CASO, DENOMINACION, COMPOSICION Y ATRIBUCIONES.

De conformidad con el art. 20.1.c) de la Ley 7/85 de 2 de abril, los órganos complementarios, que tengan por objeto el estudio, informe o consulta, de los asuntos que han de ser sometidos a la decisión del Pleno, Comisiones Informativas, existirán en los ayuntamientos de menos de 5.000 habitantes, cuando lo acuerde el Pleno.

Por la alcaldesa- presidenta se propone:

1.- crear una comisión informativa de asuntos competencia del pleno sobre economía, hacienda, patrimonio y personal, de carácter permanente, que además de actuar como Comisión Especial de Cuentas, actúe como comisión informativa.

2.-crear otra Comisión Informativa permanente, denominada de Asuntos de Pleno, para todos los asuntos o materias atribuidos al Pleno, y cuya competencia no esté atribuida a la Comisión Especial de Cuentas y que se recogen en el art. 22.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, L.R.B.R.L.

Una vez constituida, los asuntos que sean competencia del pleno no se pueden someter al pleno, sin su preceptivo informe o dictamen, si bien su propuesta no es vinculante.

Su composición obedece a las mismas reglas que la Comisión Especial de Cuentas.

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, crear la comisión informativa de economía, hacienda, patrimonio y personal, con carácter permanente, que actuará como Comisión Especial de Cuentas e informativa de los asuntos que sean competencia del pleno en estas materias y que está integrada por los componentes de la Comisión Especial de Cuentas, designados en el punto anterior.

Presidenta: D^a Irantzu Ibarondo Abad, alcaldesa.

Vocal: representante del EAJ-PNV a D^a Rebeca García Artiach.

Vocal: Representante de EH BILDU: D. Agustín Cuadrado Torre

Vocal: Representante de AEI: D. Jesús M^a Mena Mauriz.

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, crear la Comisión Informativa denominada de Asuntos de Pleno, permanente, para informar todos los expedientes atribuidos al Pleno, y que no esté atribuida a la otra Comisión creada y que se recogen en el art. 22.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, L.R.B.R.L.

Se designan a los componentes de la citada Comisión:

Presidenta: D^a Mamen Etxebarria Berasaluze, primera teniente de alcalde.

Vocal: representante del EAJ-PNV a D. Unai Antón Castelao.

Vocal: Representante de EH BILDU: D^a Begoña Martínez López

Vocal: Representante de AEI: D. Germán Gazpio Sampayo.

Se nombran vocales suplentes por EH BILDU a D. Daniel Campo Urkidi y por la AEI a D. Alberto Lambarri Arana, posponiendo el grupo EAJ-PNV la designación de sus suplentes para un momento posterior.

5.- CONSTITUCION DE LOS GRUPOS POLITICOS MUNICIPALES.

De conformidad con lo establecido en el art. 73.3. de la Ley 7/85 de 2 de abril reguladora de las bases de régimen local y el art. 34 de la Ley 2/2006, de 7 de abril, Ley de Instituciones Locales de Euskadi, los grupos políticos municipales se constituirán mediante escrito dirigido a la presidencia de la corporación, firmado por todos los miembros de la misma que deseen integrarlo y formalizándolo entre el pleno de constitución y antes del pleno extraordinario convocado para determinar la organización y funcionamiento municipal.

Se da cuenta al Pleno que dentro del plazo legal establecido se han presentado escritos suscritos por EH BILDU, el 19 de junio, EAJ- PNV el 21 de junio y la AEI el 24 de junio, manifestando su voluntad de constituirse en grupo político municipal y designando a los portavoces de cada grupo:

Portavoz de EH BILDU: .D^a Begoña Martínez López, como titular y D. Agustín Cuadrado Torre como suplente.

Portavoz del EAJ-PNV: D. Unai Antón Castelao como titular y D^a Mamen Etxebarria Berasaluze como suplente.

Y, Portavoz de la AEI: D. Jesús M^a Mena Mauriz y como suplente, D. Germán Gazpio Sampayo.

Dada cuenta se dan por constituidos los grupos municipales siguientes:

Grupo EAJ-PNV.

Grupo EH BILDU.

Grupo AEI.

6.- FIJAR LA PERIODICIDAD DE LAS SESIONES ORDINARIAS DE PLENO Y DE LAS COMISIONES INFORMATIVAS, SI SE CREAN.

De conformidad con el art. 46.2. de la Ley 7/85, de 2 de abril, L.R.B.R.L. son sesiones ordinarias de pleno las de periodicidad establecida, que en los municipios de menos de 5.000 habitantes será de tres meses o menos, si lo acuerda el pleno.

Se propone:

Fijar una periodicidad de dos meses y en el horario de tarde a las 18,00 horas.

Señalar para su celebración el último jueves de mes durante los meses de enero, marzo, mayo, septiembre y noviembre y el primer jueves de mes en julio.

Establece la posibilidad de adelantar o retrasar una semana, el pleno ordinario, cuando coincida con periodos vacacionales de Navidades, Semana Santa o vacaciones estivales.

Fijar también una periodicidad de dos meses para la celebración de las Comisiones Informativas, que se celebrarán los miércoles de la semana anterior a la sesión ordinaria de pleno.

Se acuerda por unanimidad aprobar la propuesta y fijar la periodicidad de las sesiones ordinarias de pleno cada dos meses, el último jueves de mes, en enero, marzo, mayo, septiembre y noviembre y el primer jueves de mes en julio y las sesiones ordinarias de las Comisiones Informativas el miércoles de la semana anterior al pleno ordinario.

7.- NOMBRAMIENTO DEL PRESIDENTE, CARGO ELECTO, INTEGRANTE DE LA MESA DE CONTRATACION.

Tal y como establece la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, en su Disposición Adicional segunda, punto 7, la Mesa de Contratación estará presidida por un miembro de la corporación, cargo electo que deberá ser designado por el Pleno.

Se propone a D^a Irantzu Ibarondo Abad, alcaldesa.

Se acuerda por unanimidad de los asistentes aprobar su designación como presidenta de la Mesa de Contratación, con carácter permanente.

8.- NOMBRAMIENTOS DE REPRESENTANTES DE LA CORPORACION EN ORGANOS COLEGIADOS QUE DEBEN SER NOMBRADOS POR EL PLENO.

8.1.- MANCOMUNIDAD DE LAS ENCARTACIONES.

Los representantes en la mancomunidad, designados por cada Ayuntamiento entre sus miembros, lo serán proporcionalmente al número de concejales que ostente

cada partido. En caso de empate en el número de concejales, se tendrá en cuenta el número de votos obtenidos en las últimas elecciones.

En base a la proporción preestablecida, así como a la establecida por el art. 7 de los Estatutos de la Mancomunidad al Ayuntamiento de Sopuerta le corresponde el nombramiento de:

Cuatro representantes en la Junta General: 2 del EAJ-PNV, 1 de EH BILDU y 1 de la AEI de Sopuerta:

Se designan a los siguientes:

- 1.- D^a Mamen Etxebarria Berasaluze, de EAJ-PNV.
- 2.- D^a Rebeca García Artiach de EAJ-PNV.
- 3.- D. Daniel Campo Urkidi, de EH BILDU.
- 4.- D. Jesús M^a Mena Mauriz de la AEI de Sopuerta.

Corresponde también el nombramiento por el Pleno, de un representante en la Junta Permanente.

Se propone a D^a Irantzu Ibarondo Abad, alcaldesa.

Votando a favor de la propuesta los cuatro concejales de EAJ-PNV y absteniéndose los cuatro concejales de EH BILDU y los tres representantes de la AEI de Sopuerta.

Se acuerda por la mayoría simple de votos a favor de los asistentes al Pleno, designar como representante del Ayuntamiento de Sopuerta en la Junta General de la Mancomunidad a D^a Irantzu Ibarondo Abad, alcaldesa-presidenta.

8.2.- ENKARTUR-ASOCIACION DE TURISMO DE LAS ENCARTACIONES.

Corresponde designar a un representante.

Se propone por el EAJ- PNV designar representante a un concejal de la AEI, grupo que propone el nombramiento a favor de D. Jesús M^a Mena Mauriz.

Se designa por unanimidad de los asistentes a D. Jesús M^a Mena Mauriz de AEI de Sopuerta, representante del Ayuntamiento de Sopuerta en Enkartur.

8.3.- ENKARTERRIALDE.

Corresponde designar a un representante.

Se propone por la alcaldesa- presidenta designar a un representante de EH BILDU, que propone a su concejal D. Agustín Cuadrado Torre.

Se designa por unanimidad de los asistentes, a D. Agustín Cuadrado Torre concejal de EH BILDU, representante del Ayuntamiento en Enkarterrialde.

8.4. – CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA.

Corresponde designar a un representante.

Se propone por la alcaldesa- presidenta nombrar a D^a Mamen Etxebarria Berasaluze del EAJ-PNV.

Con los votos a favor de los cuatro concejales del EAJ-PNV, y la abstención de los cuatro concejales de EH BILDU y los tres representantes de la AEI de Sopuerta.

Se acuerda por la mayoría simple de votos a favor de los asistentes al Pleno, designar como representante del Ayuntamiento de Sopuerta en el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia a D^a Mamen Etxebarria Berasaluze, primera teniente de alcalde.

Y no habiendo más asuntos del orden del día, incluidos en la convocatoria de esta sesión extraordinaria, se levanta la sesión, por la Presidenta, siendo las 9,55 horas, de todo lo que, como Secretaria extendiendo la presente Acta, para su debida constancia. Doy fe.

UDALBATZAREN 5/19 ZENBAKIKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA; 2019ko EKAINAREN 25ean, GOIZEKO 9:30ean EGIN DA, UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN, ETA HONAKO HAUEK BERTARATU DIRA:

Udalburua: Irantzu Ibarrondo Abad and. (EAJ-PNV)

Alkateordeak: Lehen alkateordea: Mamen Etxebarria Berasaluze and. (EAJ-PNV)

Bigarren alkateordea: Unai Anton Castelao jn. (EAJ-PNV)

Hirugarren alkateordea: Rebeca García Artiach and. (EAJ-PNV)

Zinegotziak: Agustín Cuadrado Torre jn. (EH BILDU)

Begoña Martínez López and. (EH BILDU)

Daniel Campo Urkidi jn. (EH BILDU)

Asier Likona Santamarina jn. (EH BILDU)

Alberto Miguel Lambarri Arana jn. (AEI)

Germán Gazpio Sampayo jn. (AEI)

Jesús María Mena Mauriz jn. (AEI)

Toki-erakundeko idazkari eta kontu-hartzaile Esther Santamaría Dolores andreak lagundu die, eta ekitaldiaren fede eman du.

AKTA

1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2019ko EKAINAREN 15ean UDALA ERATZEKO EGINIKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA.

Udala eratzeke 2019ko ekainaren 15eko bilkuraren aktaren zirriborroa bilkura honetarako deialdiaren aurretik bidali zenez, irakurritzat jo da.

Bertaratuei galdetu zaie ea oharrik egin nahi duten, eta EH BILDUko Begoña Martínez andreak hartu du hitza, EH BILDUko zinegotziek erabilitako euskarazko zin

egiteko formula zuzentzeko. Hau da formula zuzena: “Lege aginduzko bidez zin egiten dut”.

AEIko Alberto Lambarri jaunak adierazi du berak zin egin zuela “lege aginduz” esapidea gehitu gabe; hortaz, kendu egin behar da.

Azkenik, Irantzu Ibarrodo andreak EAJ-PNVko zinegotziek erabilitako euskarazko zin egiteko formula zuzendu du; honela esan behar du: “Legeak aginduta zin egiten dut”.

Berretsi egin da 2019ko 4 zenbakiko aurreko ezohiko bileraren akta, ekainaren 15ekoa, Udala eratzea xede zuena; adierazitako zuzenketak gehitu dira.

EBAZPENAK

2.- ALKATEORDEEN IZENDAPENEN ETA EMANDAKO ESKUORDETZEN BERRI EMATEA.

Apirilaren 2ko 7/85 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen) 20.1.a) artikuluekin bat etorritik, udal guztietan alkateordeak egongo dira; eta Lege bereko 21.2 artikulua arabera, alkatearen eskumena izango da alkateordeak izendatzea.

Udalbatzari jakinarazi zaio, ekainaren 19ko 345/19 zenbakiko Dekretuaren bidez, honako hauek izendatu direla udal honetako alkateorde, hurrenkera honetan:

1. alkateordea: Mamen Etxebarria Berasaluze and. (EAJ-PNV).

Gizarte Ongizate, Berdintasun, Gazteria eta Segurtasun sailak eskuordetu zaizkio.

2. alkateordea: Unai Antón Castelao jn. (EAJ-PNV).

Mendi, Turismo eta Kirol sailak eskuordetu zaizkio.

3. alkateordea: Rebeca García Artiach and. (EAJ-PNV).

Ekonomia eta Ogasun, Kultura eta Hezkuntza, eta Ondare sailak eskuordetu zaizkio.

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

3.- DERRIGORREZKO KONTUEN BATZORDE BEREZIA ERATZEA.

Apirilaren 2ko 7/85 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen) 20.1.e) artikuluekin bat etorriz, udalerrri guztietan Kontuen Batzorde Berezi bat egongo da. 116. artikuluan aurreikusitako egiturari jarraikiz, Udalbatzako talde politikoetako kideek osatuko dute Batzordea.

Udalbatzako talde politiko guztiek izango dute bertan parte hartzeko eskubidea, zinegotziak ordezkari gisa jarrita, Udalbatzan duten zinegotzi kopuruarekiko proportzioan. Udalbatzan ordezkariak duten talde guztiek ordezkari bat izateko eskubidea dute. Kasu honetan, hiru kide dira: 1 EAJ-PNVkoa, 1 EH BILDUkoa eta 1 AEIkoa. Hala ere, botoa haztatuko da, Udalbatzan duten ordezkariarekiko proportzioan. Udalbatzako alkatea guzti-guztietako presidentea izango da, baina presidentetza eraginkorra Udalbatzako edozein kideri eskuordetu ahalko dio.

Honako hauek izango dira Kontuen Batzorde Bereziko kideak:

Presidentea: Irantzu Ibarrondo Abad andrea, alkatea.

Kidea: Rebeca García Artiach andrea, EAJ-PNVko ordezkaria.

Kidea: Agustín Cuadraro Torre jauna, EH BILDUko ordezkaria.

Kidea: Jesús M^a Mena Mauriz, AEIko ordezkaria.

Eta hauek izango dira ordezkoak:

EAJ-PNV taldeak hurrengo osoko bilkuraren batean izendatuko ditu ordezkoak.

EH BILDUko ordezko kidea: Begoña Martínez López and.

AEIko ordezko kidea: Germán Gazpio Sampayo jn.

4.- INFORMAZIO-BATZORDEAK ERATZEA ETA, HALA BADAGOKIO, KIDEAK IZENDATZEA, BATZORDEAK OSATZEA ETA ESKUMENAK EMATEA.

Apirilaren 2ko 7/85 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen) 20.1.c) artikuluekin bat etorriz, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, Udalbatzak hala erabakitzen badu, organo osagarriak egongo dira, Udalbatzaren erabakipean jarriko diren gaiak aztertu, horien gainean txostena egin eta horietaz aholkua emateko; adibidez, informazio-batzordeak.

Alkate-udalburuak hau proposatu du:

1.- Informazio-batzorde bat sortzea ekonomia, ogasun, ondare eta langileen arloei buruzko Udalbatzaren eskumeneko gaiak lantzeko. Iraunkorra izango litzateke eta, Kontuen Batzorde Berezi gisa jarduteaz gain, informazio-batzorde ere izango litzateke.

2.- Osoko Bilkurako Gaiak izeneko informazio-batzorde iraunkor bat sortzea, Udalbatzari dagozkion gai edo auzi guztietarako. Gai horien eskumena ez da Kontuen Batzorde Bereziarena izango, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen) 22.2 artikuluan jasotakoak barne hartuko ditu.

Behin erabakia, Udalbatzaren eskumenekoak diren gaiak ezingo dira osoko bilkurara eraman batzordearen derrigorrezko txosten edo irizpenik gabe; nolahi ere, haren proposamena ez da loteslea izango.

Kontuen Batzorde Berezia eratzeko arau berberak aplikatuko dira.

Bertaratuek aho batez erabaki dute ekonomia, ogasun, ondare eta langileen arloei buruzko informazio-batzorde iraunkorra sortzea. Arlo horietan, Udalbatzaren eskumenekoak diren gaien informazio-batzorde eta Kontuen Batzorde Berezi gisa jardungo du, eta aurreko puntuan zehaztutako Kontuen Batzorde Berezi kideek osatuko dute.

Presidentea: Irantzu Ibarrondo Abad andrea, alkatea.

Kidea: Rebeca García Artiach andrea, EAJ-PNVko ordezkaria.

Kidea: Agustín Cuadraro Torre jauna, EH BILDUKo ordezkaria.

Kidea: Jesús M^a Mena Mauriz, AEIko ordezkaria.

Bertaratuek aho batez erabaki dute Osoko Bilkurako Gaiak izeneko informazio-batzorde iraunkorra sortzea, Udalbatzari dagozkion espediente guztien berri emateko, sortutako beste batzordearen eskumenetatik kanpo, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikuluan jasotakoak barne hartuz.

Hauk osatuko dute batzordea:

Presidentea: Mamen Etxebarria Berasaluze andrea, lehen alkateordea.

Kidea: Unai Antón Castela jauna, EAJ-PNVko ordezkaria.

Kidea: Begoña Martínez López andrea, EH BILDUKo ordezkaria.

Kidea: Germán Gazpio Sampayo jauna, AEIko ordezkaria.

EH BILDUren ordezeko kidea Daniel Campo Urkidi jauna izango da, eta AEIkoa Alberto Lambarri Arana jauna. EAJ-PNVk hurrengo bilkuraren batean izendatuko ditu ordezekoak.

5.- UDAL TALDE POLITIKOAK ERATZEA.

Bat etorritz apirilaren 2ko 7/85 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen) 73.3 artikuluan eta apirilaren 7ko 2/2006 Legearen (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) 34. artikuluan ezarritakoarekin, udal talde politikoak eratzeko, idazki bat aurkeztu behar zaio Udalbatzako Presidentetzari, talde politikoa osatu nahi duten kide guztiek sinatua. Idazkia Udalbatza eratzeko osoko bilkuraren ondoren formalizatuko da, Udalaren antolamendua eta funtzionamendua zehazteko deitutako ezohiko osoko bilkuraren aurretik.

Udalbatzari jakinarazi zaio hauek aurkeztu dituztela idazkiak, ezarritako legezko epearen barruan: EH BILDUK ekainaren 19an, EAJ-PNVk ekainaren 21ean eta AEIk ekainaren 24an. Idazki horietan, adierazi dute udal talde politiko izan nahi dutela, eta talde bakoitzeko bozeramaileak izendatu dituzte:

EH BILDUKO bozeramailea: .Begoña Martínez López andrea, titular gisa, eta Agustín Cuadrado Torre jauna, ordezeko gisa.

EAJ-PNVko bozeramailea: Unai Antón Castelao jauna, titular gisa, eta Mamen Etxebarria Berasaluze andrea, ordezeko gisa.

Eta AEIko bozeramailea: Jesús M^a Mena Mauriz jauna, titular gisa, eta Germán Gazpio Sampayo jauna, ordezeko gisa.

Horren berri eman ondoren, eratutzat jo dira udal talde hauek:

EAJ-PNV taldea.

EH BILDU taldea.

AEI taldea.

6.- OHIKO OSOKO BILKUREN ETA, HALAKORIK SORTZEN BADA, INFORMAZIO-BATZORDEEN BILKUREN ALDIZKAKOTASUNA EZARTZEA.

Apirilaren 2ko 7/85 Legearen (TAOAL) 46.2 artikulua arabera, ohiko osoko bilkurak dira aldizkakotasun finkoa dutenak. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, aldizkakotasun hori hiru hilabete edo gutxiagokoa izango da, Udalbatzak hala erabakitzen badu.

Hau proposatu da:

Bi hilabeteko aldizkakotasuna finkatzea, eta bilkurak 18:00etan egitea.

Urtarrilean, martxoan, maiatzean, irailean eta azaroan, hilabeteko azken ostegunean egitea; eta uztailean, hilabeteko lehen ostegunean.

Ohiko bilkura Gabonetako, Aste Santuko edo udako oporrekin bat datorrenean, astebete aurreratu edo atzeratuko da.

Horrez gain, bi hilabeteko aldizkakotasuna ezarri da informazio-batzordeentzat; ohiko osoko bilkuraren aurreko asteko asteazkenetan bilduko dira.

Aho batez erabaki da proposamena onestea eta ohiko osoko bilkurak bi hilez behin egitea (urtarrileko, martxoko, maiatzeko, iraileko eta azaroko azken ostegunetan, eta uztaileko lehen ostegunean), eta informazio-batzordeen ohiko bilkurak ohiko osoko bilkuren aurreko asteko asteazkenetan egitea.

7.- KONTRATAZIO MAHAIKO BURUA IZENDATZEA (KARGU HAUTETSIA).

Azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa) bere bigarren xedapen gehigarriko 7. puntuan ezartzen duenari jarraikiz, Kontratazio Mahaiko burua Udaltzako kide bat izango da, eta Udaltzak berak hautatu behar du.

Proposatu da Irantzu Ibarrondo Abad alkate andrea izendatzea.

Berlaratuek aho batez erabaki dute alkate andrea izendatzea Kontratazio Mahaiko buru, modu iraunkorrean.

8.- KIDE ANITZEKO ORGANOETARAKO UDALBATZAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA, OSOKO BILKURAN IZENDATU BEHAR DIRENAK.

8.1.- ENKARTERRIKO MANKOMUNITATEA.

Udal bakoitzak bere kideen artean izendatu beharreko Mankomunitateko ordezkariak proportzionalak izango dira alderdi bakoitzak dituen zinegotzien kopuruarekiko. Zinegotzien kopuruan berdinketa egonez gero, kontuan hartuko da azken hauteskundeetan lortutako boto kopurua.

Aurrez ezarritako proportzioaren eta Mankomunitatearen Estatutuen 7. artikuluan ezarritako proportzioaren arabera, Sopuertako Udalari ordezkari hauek izendatzea dagokio:

Batzorde Nagusirako lau ordezkari: 2 EAJ-PNVkoa, 1 EH BILDUkoa eta 1 Sopuertako AEIkoa:

Hauek izendatu dira:

- 1.- Mamen Etxebarria Berasaluze andrea, EAJ-PNVkoa.
- 2.- Rebeca García Artiach andrea, EAJ-PNVkoa.
- 3.- Daniel Campo Urkidi jauna, EH BILDUkoa.
- 4.- Jesús M^a Mena Mauriz jauna, Sopuertako AEIkoa.

Udalbatzari dagokio, halaber, Batzar Iraunkorrerako ordezkari bat izendatzea.

Proposatu da Irantzu Ibarrondo Abad alkate andrea izendatzea.

Proposamenaren alde bozkatu dute EAJ-PNVko lau zinegotziek, eta abstenitu egin dira EH BILDUko lau zinegotziak eta Sopuertako AEIko hiru ordezkariak.

Osoko bilkurara bertaratu direnen aldeko botoen gehiengo soil bidez erabaki da Irantzu Ibarrondo Abad alkate-udalburu andrea izendatzea Sopuertako Udalaren ordezkari, Mankomunitatearen Batzar Iraunkorrerako.

8.2.- ENKARTUR-ENKARTERRIKO TURISMO ELKARTEA.

Ordezkari bat izendatu behar da.

EAJ-PNVk proposatu du AEIko zinegotzi bat izendatzea, eta talde horrek proposatu du Jesús M^a Mena Mauriz jauna izendatzea.

Bertaratuek aho batez erabaki dute Sopuertako AEI taldeko Jesús M^a Mena Mauriz jauna izendatzea Sopuertako Udalaren ordezkari, Enkarrurrerako.

8.3.- ENKARTERRIALDE.

Ordezkari bat izendatu behar da.

Alkate-udalburuak proposatu du EH BILDUko ordezkari bat izendatzea, eta talde horrek proposatu du Agustín Cuadrado Torre zinegotzi jauna izendatzea.

Bertaratuek aho batez erabaki dute EH BILDUko zinegotzi Agustín Cuadrado Torre jauna izendatzea Udalaren ordezkari, Enkarterrialderako.

8.4.- BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA.

Ordezkari bat izendatu behar da.

Alkate-udalburuak proposatu du EAJ-PNVko Mamen Etxebarria Berasaluze andrea izendatzea.

Alde bozkatu dute EAJ-PNVko lau zinegotziek, eta abstenitu egin dira EH BILDUko lau zinegotziak eta Sopuertako AEIko hiru ordezkariak.

Osoko bilkurara bertaratu direnen aldeko botoen gehiengo soil bidez erabaki da lehen alkateorde Mamen Etxebarria Berasaluze andrea izendatzea Sopuertako Udalaren ordezkari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergorako.

Eta ezohiko bilkura honen deialdian jasotako aztergaien zerrendan beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman du udalburuak, 09:55ean. Nik, idazkari gisa, akta egin dut, jasota gera dadin, eta horren guztiaren fede ematen dut.